

gaurkoa

Horrela definituko nuke nik, joan den aste ezinago larri honetan, gure herriari aginte vascongodoak eskainitako ikuskari ahalekiarria.

«Haré cumplir la ley», iragarri zuen Quisling Ibarretzek, ozen eta ermo.

Alegia: «haré cumplir a rajatabla la única Ley que se debe escribir con mayúsculas en nuestro país. La Ley española».

Arana-Goirenen jarraitzaileen ezpainetan baino gehiago, Esteban Bilbaoerenetan espero zitezkeen! Gogortxo, ez da? Sinesgaitz ere bai abertzale guztion bihotz ondoan.

Baina Ertzaintzaren balentriek berehala argitu zuten dena. Egia zen: espainiar legeria behar zen bermatu, ez gurea!

«Madriplekin eskuz esku jokatzuz» (J.J. Imazek dixit: «estamos coordinados en contacto permanente con el Ministerio Central»), «bururaino eramango dugu HBren kontrako operazioa. Para cumplir así, como es debido, lo que vayan decidiendo por nosotros el PP y el PSOE en la capital del Estado. Amén».

Eta, harrigarrik ziztu, hamaika irati eta telebista-katetan, ertzainak ikusi genituen, heriosuhar: hemen gure ikurrina ostikopetzen; han, esfortzuz handiz erakitako biltokiak «prezintatzen»; eta haratago, txokoak bortxarrik ezean eta dinatasunez defenditzen zituzten aberkide zaildu eta errespetauak, bultzaka astintzen eta lotsagabeki isekutzen.

Egun hitsak, benetan, ahantz ezinak. Bai guretzat, noski. Baina baita espainiar agintarientzat ere. Orain denok dakigu, berek eta guk, nor non den.

Geroztik astebetea igarota den une honetan, «goitik» hedatu den mezuak («Madripletik» esatea zuzenago) garbi utzi du pentsakera hispano-autonomikoa zein den: «Los energúmenos de HB, como de costumbre han montado otro show»...

Edota, Erreinu hiru-burutik mintzatu ohi den burusoilak: «Sólo una infima minoría se ha opuesto a la impecable actuación de la Ertzaintza»...

Hispano-autonomistak Espainiaren morroi fidel agertu ondoren, behazuna eta irain garratza isuri.

Tripartitua, artean, tinko berean: «Aparte de un ojo vaciado y de algunos porrazos, ha sido impecable. Son los daños colaterales inevitables cuando hay que aplicar 'La Ley' en un contexto anti-terrorista».

Eta orain, alimaleko leherketa horren ondoren, zer?

Hispano-autonomismoak mozorroa erantzi du. Ezker Abertzalerik ez omen dago. Beraz, nekez eska dakiok ezalpenik.

Tripartitua dago, hori

Txillardegí • Idazlea

Fartsa autonomikoaren amaia

bai. Egun hauetako desmasiak PNV, EA eta IUren izenean obratu dira. Eta ez dugu ahantziko.

Eta, hirugarrenik, PP eta PSOE daude, pozarren, harropuzturik, ezin sesegaturik. «Ya era hora» diote ahobatez.

Eta, orain? Batzuek hauxe diote gutxi gorabehera: «nor bere etxera, eta kitto»...

Baina gauzak aldatu egin dira.

Denok ikusi dugu nork banatu duen egurra, eta nork hartu. Eta tertuliano-

ek nor txalotu duten, eta nor larrutu. Giroa argitu egin da. Erabat.

Jadanik, Ibarretzek ez da «Provincia vascongadoetako lehendakaria», Madriplek beinekatutako «Gobernadore Zibila» baizik.

Eta galdera ziplu dator: Gure honetan, zer hauteskunde eta zer deabru antola daiteke datorren udaberrian?

Horren urriti joan gabe, eta orain bertan, zer «politika» eta zer arraio egun dezakete instituzioetan gure hauteskiek, neo-frankismo

betean mehatxaturik sistema mozorrotu besterik?

Orain dela bizpahiru urte, «el Estatuto ha muerto» esaldiak harrotu zituen segurantzian, zer sentidu dukete 2003ko Udal Hauteskundeek? «Estado de Excepción» bete, hauteskunderik?

Hirukoari 800.000 boto emateak zertarako balio izan duen garbi agertu da. Nori botoa emango 2003an? ANV-ri? Elkarriri? Aralarri? Zertarako? Fartsari areago eusteko?

Eta, guri dagokigunez, gure 80.000 boto-emaile haiek, hobe beharrez eta gogoz kontra PNV-ri beste aukera bat eskaintzea onena zela erabaki zutenek; eta egun hauetan denok jasandun zuplateko anke-

ez den gauza bakarra.

Eta, herriro diogu, gauzak beren horretan (eta are okerrago jarriko diren segurantzian), zer sentidu dukete 2003ko Udal Hauteskundeek? «Estado de Excepción» bete, hauteskunderik?

Hirukoari 800.000 boto emateak zertarako balio izan duen garbi agertu da.

Nori botoa emango 2003an? ANV-ri? Elkarriri? Aralarri? Zertarako? Fartsari areago eusteko?

Eta, guri dagokigunez, gure 80.000 boto-emaile haiek, hobe beharrez eta gogoz kontra PNV-ri beste aukera bat eskaintzea onena zela erabaki zutenek; eta egun hauetan denok jasandun zuplateko anke-

rra hartuta, nondik nora errepikatuko dute hankasartze bera?

HB legetik at jarrita, aukerarik ez dago hemen hauteskunde eta partidu politika «konbentzionaletarako». Eta autonomistek berriro etxe zuririk emateko ere ez.

Ondoko asteotan, ene usitez, errotik aldatu behar ditugu bai pentsamoldea eta bai jokabideak.

Kondaira urrats berri batean sartu gara.

Erabat kolpaturik eta lardaskaturik gelditu diren alderdien gainetik, autodeterminazio prozesua behar da bideratu.

Orain, aberkideok, eta Madriplek eta autonomistek zartatutako tifoia ondo-ondorioz: autodeterminazioa alia hil. •

Denok ikusi dugu nork banatu duen egurra, eta nork hartu. Tertulianoek nor txalotu duten, eta nor larrutu. Giroa argitu egin da. Erabat. Eta galdera ziplu dator: ze hauteskunde eta ze deabru antola daiteke?



jo puntua

Pako Aristi • Idazlea

Orri zuriaren indarra

Egunerietan agertu den argazkiak gaizki zentratua zegoela zirudien: luzea zen, orri batzuetan bost zutabe hartzen zituelarik; ezker-bazterrean, Michavila ministroa ageri zen, eta, haren ondoan, argazki gehiena okupatuz, karpeta pilo bat, artxibategietan erabiltzen diren horietakoak.

26 karpeta dira guztira: 10.000 folio idatzi gordetzen dituzte, Batasunaren aurkako 1.000 frogara baino gehiago, itxuraz. Eta aparte, diapositibak, bideo-zintak, argazkiak, polizi-txostenak eta magnetofoni-grabaketak daude. Estatuko fiskalak material gutxiago aurkeztu du: 73 folio bakarrik, eta frogekin sei kaxa besterik ez.

Hau da aspaldi honetan Euskal Herriari buruz idatzi den literaturarik beltzena. Ka-

xa horietan gordetzen da Madriplek gutaz duen ikuspegia; espainiar biztanleek gutaz eduki dezaten Madriplek nahi duen irudia; Europan eta errenta per capita duineko munduko nazioetan Madriplek gutaz zabaldu nahi duen irudia, terrorismoaren aurka burutzen ari den gerra latza ezaguturik, nazio horiek lagun diezaioeten unea iristen denean, hango euskaldun susmagarriak susmorrik gabeko bide judizialen bitartez hona bidaliz, lokalak eta enpresak itxiz, web-orriak ilunduz, Euskal Etxeetako ikurrinak masta muturretatik kentzeraino.

Asteotan bizi dugun erokeriarik ez dut ezagutu oraindano, eta ez nuen uste posible zenik ere. Ez nuen uste gure herria gorrotatzen dutenek halako protagonismorik lortu-

ko zutenik, gorrotoa, besteak beste, bide-itxitzailea baita, baldarra eta koldarra bere ekinetan. Horregatik, uste dut herria maite dugunon ahuldadeak eta zalantzak gehiago lagundu die, euren gorrotoak baino.

Gure hutsune handiak noizten ari gara, besteak beste hedabide propio eta indartsuen hutsunea, gure maitasunaren izaera folkloriko/sinboliko gehiegizkoa, eta alderdi abertzale eskuindarren hondoramen etikoa, politika ia gestio ekonomiko hutserra murriztu duten horien sentimendu ezak eragindakoa.

Manifestazioak ere debekatu, istilurik bortitzenak eragin ditagun nahi dute, literatura beltzak argumentu berriak izan ditzan. Argitu nahi dute Euskal Herri hori ez da benetakoa. Eta guri dagokigu, orri zuririk betez, mikrook geureganatu, argazkietan geure buruak ondo zentratuz, gezur hori munduari agertzea. Harriak jasotzen daukagun indarra isuri behar dugu orain orri zuririk idatzen. Gure argizkia ez dago literatura beltz horretan, pazientzia santuaren bidez soilik idatziko ditugun kontakizunetan baizik. •

